



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

VI. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2025eko maiatzaren 28, 29 eta 30a
Bilbo, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)



Aitortu-PartekatuBerdin 4.0

GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

Oinordetza Zuzenbidea XXI.
mendeko euskal gizartera
egokitzeko erronka:
diziplinarreko ikerketa

Leire Gorostiza Etxeberria

157-164 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.vi.02.20>

ANTOLATZAILEA



BABESLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



LAGUNTZAILEAK



Oinordetza Zuzenbidea XXI. mendeko euskal gizartera egokitzeko erronka: diziplinarteko ikerketa

Leire Gorostiza Etxeberria
Enpresa Zuzenbidea eta Zuzenbide Zibila
Euskal Herriko Unibertsitatea
leire.gorostiza@ehu.eus

Laburpena

XXI. mendeko euskal gizartea indibidualismoak, familia eredu anitzek, etenik gabeko zahartze demografikoak eta ondarearen gaineko kontzeptualizazio berriak janzten dute. Euskal Zuzenbide Zibila errealitate berri horretara egokitu beharra dagoela ukaezina da, eta, horretarako, baitezpadakoa da diziplina desberdinetik erronka honi heltzea; hain zuzen ere, legea bere horretan aztertu eta euskal gizartearen beharrianak identifikatzea, alegia, ikuspegi juridikoa soziologikoarekin uztartzea. Ildo horretatik, metodologia mistoa proposatzen da; batetik, dokumentu notarial eta epaien gaineko azterketa; eta, bestetik, elkarrizketak, legearen idazketan eta aplikazioan parte hartu duten profesionalen, bai eta euskal gizartearen ere. Azterketa enpirikoa lagungarria da egun indarrean den 5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskal Zuzenbide Zibilar buruzkoa sakonean ikuskatu, eta bere eragingarritasun soziala aztertzeko, bai eta, hala dagokionean, Eusko Legebiltzarrari etorkizuneko proposamen legeilea egiteko ere.

Hitz gakoak: oinordetza, familia, askatasun zibila, eragingarritasun soziala, diziplinartekotasuna, metodologia mistoa.

Abstract

Individualism, the diversity of family models, the continuous aging of the population and the new conceptualization of heritage are shaping Basque society in the 21st century. The need to adapt Basque civil law to this new reality is undeniable and, to this end, it is essential to address this challenge from different disciplines, analyzing the law on its own terms and identifying the needs of Basque society, that is, combining the legal perspective with the sociological one. In this sense, the study proposes a mixed methodology of analysis of notarial documents and court rulings and interviews with the professionals who have participated in the drafting and application of the law, as well as with Basque society. The empirical analysis contributes to the in-depth review of the current Law 5/2015, of June 25, on Basque Civil Law and to the analysis of its social effectiveness, as well as, in its case, to the elaboration of a future legislative proposal to the Basque Parliament.

Keywords: inheritance, family, freedom of testation, social efficacy, interdisciplinary, mixed methodology.

1. Sarrera eta motibazioa

Oinordetza Zuzenbideaz ari garenean, herritarrok, *inter vivos* edo *mortis causa*, gure eskubide, betebeharrak eta ondasunak xedatzeaz ari gara. Testamentugileak askatasun osoz egin dezake hori, edo, kontrara, legeak zehaztutako mekanismo batzuek mugatua. Euskal Zuzenbide Zibilar buruzko Legeak (aurrerantzean EZZL) mugak ezartzen ditu eskubide, betebeharrak edo ondasunak xedatzeko; hain zuzen ere, batetik, senipartearen bitartez, legeak testamentugilea derrigortzen du heren bat, gutxienez, bere ondorengoei ematea, eta, bestetik, tronkalitatearen bitartez, ondasun tronkalak xedatzean senide tronkeroen eskubideak errespetatu behar ditu, ondarearen familia-izaera babestuz.

Euskal Autonomia Erkidegoan (aurrerantzean EAE), Europar Batasuneko (aurrerantzean EB) hainbat ordenamendu juridikoetan legez, askatasun zibilar buruzko auzia pil-pilean dagoen auzia da, eta hurrengo da eztabaida: testamentugileak ondasunak xedatzeko duen askatasunari legeak ezarritako mugak mantendu, murriztu edo ezabatu¹.

¹ Oinordetza Zuzenbidearen egokitzapenari buruzko ezinbesteko irakurketak: EAEn: Galicia (2024), Urrutia (2024), Magallón (2019); Estatuan: Torres, García (2014), Parra (2009), Vaquer (2007), Delgado (2006).

Horrek lotura zuzena du gizartearen antolaketarekin, egoera sozial eta politikoarekin, bai eta ekonomia eta familia ereduarekin ere. Abiadura bizian aldatzen doan gizartean, bizi eredu gero eta indibidualistagoa da, eta hau gizartearen zahartze progresiboarekin dago elkarreaginean. Era berean, familia ereduak gero eta anitzagoak dira, eta belaunaldi arteko kontratu tradizionalaren birmoldatzea eman da. Gauzak horrela, ezinbestekoa da legea aztertu eta euskal gizartearen beharrezanetara egokitzen den ala ez hausnartzea.

Izatez, zuzenbide pribatuaren adar honek bizia behar du izan, hau da, egungo errealitatearekin etengabe egokitzen dena, eta, gizarteak une oro dituen balio, harreman eta beharren isla. Oinordetzari buruz ari garenean, jabetzaren eskualdatzeak egungo gizartean duen garrantzia soziala ezin dugu albo batera utzi, eta, baitezpadakoa da berau arautzen duten xedapenek pertsonen bizitzetan duten eragin praktikoei dagokien arreta jartzea. Kontua ez da askatasunaren ulkerak neoliberalenaren eta ondasunak eskualdatzeko ohitura tradizionalenaren arteko eztabaida antzu bat planteatzea. Kontrara, oinordetzak bere izate praktikoenetan dituen beharrezan gaurkotuenei erantzungo dien ordenamendu juridiko bat aberastea baizik. Hori dela eta, ordua da erronka honi diziplina desberdinetatik heldu eta sakonean aztertzeko. Finean, xedea argia da: Euskal Zuzenbide Zibila euskal gizartearen errealitateari behar bezala egokitzea.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Hizpide dugun gaiaren egoerari heltzeko, beharrezkoa da, alde batetik, Euskal Zuzenbide Zibila bere horretan kokatu eta nondik norakoak ulertzea, eta, bestetik, euskal gizartearen egungo egoerari buruzko zertzelada batzuk ematea. Bietan arreta jartzea ezinbestekoa da; izan ere, testuinguru sozialak eta testuinguru juridikoak elkarri eragiten diote, batez ere Oinordetza Zuzenbidearen arloan (Luna, 2014). Familia- eta demografia-egituretan gertatzen diren aldaketek lege-araudiak etengabe egokitzea eskatzen dute, indarrean dagoen gizarte-errealitatea islatzeko. Eta, aldi berean, erreforma juridikoei, aldaketa sozialei erantzuteaz gain, ondorioak sortzen dituzte gizartean, oinordetzaren eta familia-harremanen inguruko jardunbide eta pertzepzio berriak moldatuz.

2.1. Testuinguru juridikoa

Espainiar estatuan, oinordetzari dagokionez, zazpi dira indarrean dauden ordenamendu juridikoak. Orokorra, alegia, 1889ko uztailaren 24ko Errege Dekretua, Kode Zibila argitaratzen duena (aurrerantzean EKZ), eta, tokiko sei ordenamendu: Aragoi, Balear Uharteak, Galizia, Katalunia, Nafarroa eta EAE². Gurea, 5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskal Zuzenbide Zibilar buruzkoa (aurrerantzean EZZL)³ modu subsidiarioan osatzen da EKZ eta 650/2012 Europar Batasuneko Erregelamendurekin⁴, eta EAE osoan da aplikagarria⁵. Nahiz eta orokorrean, oinordetzari erreparatuz, lurralde osoak arautegi amankomuna izan, legeak salbuespenak ezarri ditu; hala nola, testamentua egiteko askatasuna Aiaran (bertako toki-auzotasun zibila dutenek euren ondasunak askatasun osoz

² 1/2011 Legegintzako Dekretua, martxoaren 22koa, Aragoiko Gobernuarena, Aragoiko lege zibilen testu bategina onartzen duena, Aragoiko Foru Zuzenbidearen Kodea; 7/2017 Legea, abuztuaren 3koa, Balear Uharteetako Zuzenbide Zibilararen Konpilazioa aldatzen duena; 2/2006 Legea, ekainaren 14koa, Galiziako zuzenbide zibilar buruzkoa; 10/2008 Legea, uztailaren 10ekoa, Kataluniako Kode Zibilararen laugarren liburua, oinordetzei buruzkoa; 21/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilararen Konpilazioa edo Foru Berria aldatu eta eguneratzeko; 5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskal Zuzenbide Zibilar buruzkoa.

³ Eusko Legebiltzarrak, Autonomia Estatutuaren 10.5.art. eta Espainiako Konstituzioaren 149.1.8.art.ekin oinarrituta, 2015eko uztailaren 3an sartu zen 5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskal Zuzenbide Zibilar buruzkoa indarrean. Bere aitzindaria 3/1992 Legea, uztailaren 1ekoa, Euskal Herriko Foru-Zuzenbide Zibilar buruzkoa da.

⁴ 650/2012 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2012ko uztailaren 4koa, eskumenari, lege aplikagarriari, ebazpenen aintzatespenari eta betearazpenari buruzkoa, mortis causa oinordetzen arloko dokumentu publikoen onarpenari eta betearazpenari buruzkoa eta Europako oinordetza-ziurtagiri bat sortzei buruzkoa.

⁵ Honek esangura handia dauka; izan ere, aurretik legea ez zen lurralde osoan aplikagarri; hare gehiago, zati handi batean EKZ aplikatzen zen.

xedatu ahal dituzte)⁶, edo tronkalitatea Bizkaiko Lur Lauan eta ondasunen komunikazio-araubidea bizkaitarren arteko ezkontzan⁷.

Legearen arabera, herritarra ondasunak xedatzerakoan, derrigortuta dago, seniparte⁸ gisara, gutxienez, ondorengoei jarauntsiko ondasunen heren bat uztera. Horrela, senipartedunak dira seme-alabak edo ondorengoak, edozein gradutan; eta alarguna edo bizirik dirauen izatezko bikotekidea, horren gozamen-kuota dela bide, eta, betiere, beste jaraunsle-mota guztiekin batera. EZZLk ez du jaraungabetzea bere horretan arautzen; hori dela eta, EKZra jo beharra dago hori aztertzeke. Hain zuzen ere, EKZren 756 eta 853. artikuluek zehazten dute ondorengoak jaraungabetzeko arrazoi izango direla: guraso edo aurrekoari mantenua ukatzea; tratu txar edo irain larriak egitea; bizitzaren aurka atentatzeagatik epaiketari kondenatua izatea; delitua egin izanaz akusatzea (baldin eta legeak delitu horrentzat espetxealdi handia baino goragoko zigorra ezarri eta akusazioa kalumnia dela adierazten denean epai baten bidez); mehatxatzea, iruzurra edo indarkeria erabiltzea testamentua egiteko, aldatzeko, ezeztatu edo ezkutatzeke⁹. Hortik kanpo, ondorengoekiko harremanik eza edo justifikatutako kausarik gabeko urruntzea ez dira jaraungabetzeko arrazoi nahikotzat hartzen. Espainiako Auzitegi Gorenak¹⁰ gaiari heldu dio, eta, egungo errealitate soziala kontuan hartuta jaraungabetzeko kausa izan daitekeela irudi arren, epaiak adierazi du familiaren urruntzea, berez eta beste baldintzarik gabe, ezin dela halakotzat hartuko. Beraz, familia harremana galtzea bakarrik, testamentugilearen osasun fisikoa edo psikikoa ukitu gabe, ez da jaraungabetzea izango; beharrezkoa izango da arestian aipaturiko EKZk zehazturiko kausetaren bat gertatzea.

Horren aurrean tentsio bat sortzen da: badira testamentua egiteko askatasun handiagoa defendatzen dutenak, senipartearen ehunekoa murriztuta; bai eta erabat abolitzearen alde egiten dutenak ere, gaur egun zentzurik ez duen figura zaharkitutzat jotzen dutelako; beste batzuen aburuz, aukerarik onena senipartearen esanahia berriz definitzea litzateke, premia jakin batzuk dituzten senideei laguntzeko, baina hura guztiz ezabatu gabe, haren existentzia familia-babesa eta -solidaritate printzipioan oinarritzen baita (Cobas eta De Joz, 2017).

Eskuartearen dugun askatasun zibilar buruzko auzia ez da EAEren fenomeno eskusiboa, ostera, mundu osora zabaltzen da. Azken urteotan, EBko zenbait sistema juridikoei, hala nola, Alemaniak, Frantziak eta Italiak, erreforma esanguratsuak egin dituzte beren oinordetza-legeetan, testamentuaskatasuna eta seniparteari dagokionean. Ildo horretatik, Arroyok (2010) adierazi bezala, testamentugilearen zaintzaileen oinordetza-eskubide posibleetan pentsatzea ere komeni da; hain zuzen ere, jada, ordenamendu juridiko batzuetan aurreikusi dena, hala nola, Austrian, Frantzian eta Alemanian, bai eta Kataluniako eta Galiziako ordenamenduetan ere.

Nahiz eta eskuartearen daukagun ikerketak EAEko arauketa eta gizartea izan abiapuntu, inguruko ordenamendu juridikoei so egitea komeni da, antzekotasun eta desberdintasunak nabarmentze aldera. Izatez, zuzenbide konparatua aztertzeak, batetik, indargune nahiz ahulguneak identifikatzeko, eta, bestetik, egoera espezifikotik irtenbide jakin batzuk zergatik hautatu diren ulertzeko balio du, eta, hau azken batean, lurralde bakoitzeko kultura-tradizioen, faktore ekonomikoen edo gizarte-premien arabera izango da (Alvarado, 2023). Aipatzekoa da Alemaniako kasua; izan ere, Konstituzio Auzitegi Federalak¹¹ aitortu du senipartea, edo senide jakin batzuentzat nahitaezkoa den jaraunspen-zatia, Konstituzioak¹² babesten duen balio bat dela, eta ezin zaiela ukatu, eta ezin dela horren jaraunspena aurretiazko beharrian-egoera baten menpe egon. Arroyok (2010) adierazi bezala, Alemanian familia-egituren bilakaeran aldaketak izan diren arren, seniparteak ez du indarra galdu eta bere oinarriak familia-elkartasunaren eta familiaren babesaren printzipioen arabera azaltzen dira oraindik.

⁶ Nafarroarekin (1/1973 Legea) batera testamentua egiteko askatasun osoa duen kasu bakarra da Espainiar estatu osoan.

⁷ EZZLren 62. art. «1. Bizkaiko lur lauan, eta Arabako Aramaio eta Laudioko udal-mugarteetan, onibarren gaineko jabetza tronkala da. Tronkalitateak ondarearen familia-izaera babesten du. 2. Ondasun tronkalen jabeak horiek xedatu ahal ditu, bakarrik, senide tronkeren eskubideak errespetatuz».

⁸ EZZLren 48. art: «Ondorengo senipartea jarauntsiaren gaineko kuota bat da, balio ekonomikoaren arabera kalkulatzeko dena; testamentugileak kuota hori eratziki ahal die bere senipartedunei, jarauntsi, legatu edo dohaintza gisa edo bestela».

⁹ Bazterketaz eta jaraungabetzeaz gehiago irakurtzeko ikusi Atxutegi (2022).

¹⁰ Auzitegi Gorenaren Epaia, 419/2022 zk., 2022ko maiatzaren 24koa (ECLI: ES: TS: 2022:2068).

¹¹ BvR 1644/00, 188/03. BVerfGE 112n publikatua.

¹² 1949ko Alemaniako Errepublikaren Oinarriko Legearen (Grundgesetz) 14.1.I. art. 6.1.art.

Hau gureru ekarriz, Torres eta Garcíak (2014) testamentua egiteko askatasunaren, berdintasunaren, duintasun pertsonalaren eta nortasunaren garapen askearen arteko harremana aztertzen dute Oinordetza Zuzenbidean. Haiek azpimarratu moduan, seniparteak testamentu-askatasuna mugatzen du, eta, horrez gain, funtsezko tresna da familia babesteko, familiaren elkartasuna islatuz. Ikuspegi hori Espainiako Konstituzioaren 39.1 artikuluan oinarritzen da, zeinak botere publikoei esleitzen baitie familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoa bermatzea. Beraz, nabarmentzekoa da senipartea ezabatzeko edo aldatzeko edozein proposamenek familiaren babes eta elkartasunaren printzipio konstituzionala kontuan hartu behar duela.

2.2. Testuinguru soziala

Etengabe aldatzen ari den gizarte likido¹³ honetan, hamaika dira ondarearen eskualdatzeari eragin dioten faktoreak: indibidualismoa, gizartearen zahartze progresiboa, familia eredu anitzak, ondarearen kontzeptualizazio berria, belaunaldi arteko kontratu tradizionalaren birmoldatzea, zaintzarekiko, hezkuntzarekiko nahiz sostengu ekonomikorako behar eta espektatiba berriak eta abar luze bat.

Lehenik, ezkontzan oinarritutako familia-eredu androzentriko, tradizional heteroparental eta nuklearrarekin apurtu da (Rodríguez, 2020); egun, hamaika dira euskal gizarte osatzen duten familia ereduak: nuklearrak, heteroafektiboak, homoafektiboak, matrimonialak, guraso bakarrekoak, multiparentalak, sexu bereko bikotekideak, bizikidetza afektiboan oinarrituak, seme-alabarik gabeak nahiz berregituratuak (Pérez, 2019). Aitzitik, gizarte-erakundeen egokitzapen-prozesua ez da beti paraleloan joan (González et al., 2002) sistemak, oro har, familia biologiko nuklearraren ideal heteronormatiboa lehenesten jarraitu du, beste familia ereduak baztertuaz (Goldberg, 2014). Paradigma aldaketa hori dela eta, jada ezin da familia mota bakar batean pentsatu, errealitateak elkarbizitzarako modu asko erakusten baititu, eta, hortaz, familia ulertzeko moduak plurala eta inklusiboa behar du izan¹⁴. Familia eredu aniztasunak agerian uzten du ondasunen transmisioa historikoki arautu duten printzipioak berrikusteko beharra (Torres eta García, 2014).

Testuinguru demografiko aldakor baten aurrean kausitzen gara, eta biztanleriaren zahartze progresiboa Oinordetza Zuzenbidearen birdefinizioan funtsezko eragina duen beste faktore bat da. Estatistikako Institutu Nazionalaren (EIN)¹⁵ datuen arabera, 2022an, EAEko jaiotzako bizi-itxaropena 83,6 urtekoa izan zen, emakumeak 86,1 eta gizonak 80,7. Gainera, 2020an, EAEko biztanleen % 6,37k 80 urte edo gehiago zituen; horrek esan nahi du nabarmen handitu dela 2001ean erregistratutako % 3,4arekiko. Joera horrek, jaiotza-tasaren beherakadarekin batera, erronka handiak dakartza oinordetza-sistemarentzat. Horrek berekin dakar gurasoen eta seme-alaben arteko belaunaldi-kontratu tradizionala birdefinitzea (Yanguas eta Zalakain, 2023), historikoki ondasunak eta zaintzak transmititzea zekarrena.

Herentziak, historikoki, belaunaldien arteko kontratu inplizitu bati lotuta egon dira, elkarri laguntza ekonomikoa eta afektiboa emateko itxaropenetan oinarrituta, eta orain errealitate berriak hau zalantzan jartzen du. Dinamika horiek testuinguru sozial neoliberal bati erantzuten diote, eta oinordetza erantzukizun eta eskubideak ulertzeko modu berriak sortzen ari dira, gaur egungo familia-konfigurazioetara eta egungo gizartearen aldaketa kultural eta teknologikoetara egokituta. Ez hori bakarrik, senipartearen funtzio ekonomiko eta soziala funtsezkoa zen iraganean, aldiz, egun, jada ez du iraganeko zeregin bera betetzen. Familia-ereduak dibertsifikatu eta gizarte-egiturak eraldatu ahala, bidezkoa da senipartearen eginkizuna eta horrek familia-harremanetan eta oinordetza- prozesuan duen eragina birplanteatzea (Parra, 2009).

¹³ Bauman (2003) soziologoak «modernitate likidoa», «gizarte likidoa» edo «maitasun likidoa» kontzeptuak sortu zituen gure aitona-amonen errealitate solidoak (bizitza osorako lana eta ezkontza, esaterako) desagertu ondoren jaiotzen den egungo unea definitzeko: prekarioagoa, behin-behinekoa eta antsietatez betea.

¹⁴ Delgadok (2011) hurrengo galderak luzatzen ditu familiari buruz ari denean «Zein familia? Jatorrikoa, gurasoena edo anai-arrebena? Elkarren segidako ezkontzen bidez osatutako lehenengoa edo bigarrena? Edo izatezko bikotea?» (norberak itzulita).

¹⁵ EINK emandako 2022ko datuak kontuan hartu dira: https://www.ine.es/ss/Satellite?L=es_ES&c=INESeccion_C&cid=1259944484459&p=1254735110672&pagina=ProductosYServicios%2FPYSLayout¶m1=PYSDetalleFichaIndicador¶m3=1259937499084

3. Ikerketa galderak eta helburua

Horiek horrela, helburua argia da: EZZLk oinordetzari begira egiten duen arauketa aztertu eta hau egungo errealitate sozialari egokitzen den aztertzea. Indarrean dagoen arauketak ez badio euskal gizartearen beharrazanei erantzuten, kasu horretan, lanak lege erreforma proposamena luzatuko du, *lege ferenda* moduan.

Erronka nagusia hurrengoa da: familiaren babesari eta solidaritatearen printzipioari eustea, beharrazana dutenak babesik gabe ez geratzea bermatzeko, eta, era berean, testamentugilearen askatasun-printzipioa eta autonomia errespetatzea. Hortaz, nahikoa al da testamentu-autonomia zabaltzea eta, aldi berean, nahitaezko legitimazioa mugatzea zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonen, hala nola desgaitasuna duten, adingabekoen edo zailtasun ekonomikoak dituztenen? Nola arautu beharko litzateke hori?

4. Ikerketaren muina

Egungo gizarte errealitatearen eta arau juridikoen arteko lotura aztertzeko, eta, horri loturik, eskuartean ditugun ikerketa galderak erantzuteko, ikerketak diziplina arteko ikuspegia hartu behar du. Ulertezina bada ere, gaur egun, oro har, gizarte-zientziak azterketa juridikoen tresna lagungarri soil gisa erabiltzen dira; aldiz, agerikoa da legeria aztertu eta erreformak egiteko orduan funtsezko tresna izan beharko luketela (Cottier, 2014). Witkerren arabera (2015), zuzenbidearen azterketa ez da ikuspegi bakarrera mugatzen, positibismoak dioen bezala, haratago doa. Izatez, zuzenbidea hobeto ulertzen da hainbat ikuspegitatik aztertzen denean, hala nola soziologiatik, historiatik eta zientzia politikatik. Zuzenbideak dimentsio asko dituela onartzean, ikerketa teorikoak ez ezik, praktikoak eta sozialak egiteko bideak irekitzen dira.

Ildo horretatik, diziplinartekotasunari heltzeko metodologia mistoa erabiliko da; hain zuzen ere, ikerketa-galdera edo -hipotesi jakin bati ekiteko teknika kuantitatiboak eta kualitatiboak uztartzen dituen (Rodas eta Santillan, 2019). Mertensek (2005) adierazi du metodologia mistoak garrantzi berezia hartzen duela gizarte- edo hezkuntza-testuinguru konplexuetan dauden gaiak aztertzean. Norabide horretan, Onwuegbuziek eta Leechek (2005) gaineratzen dute ikerketa-metodo bakarra erabiltzera mugatzen diren azterlanek Gizarte Zientzien aurrerapenerako mehatxua direla. Azken batean, ikerketa baten emaitzak metodo desberdinak erabiliz lortu badira, askoz baliagarriagoak dira metodo bakar baten bidez baliozkotu den hipotesi bat baino (Erzberger eta Kelle, 2003).

Lehenik eta behin, dokumentu notarialak eta datu estatistikoak aztertuko dira; hain zuzen ere, Espainiako Notario Elkargoen Indize Informatizatuan oinarritutako datuak¹⁶. Zehazki, *Grupo 2: Testamentos y disposiciones de última voluntad*¹⁷ eta *Grupo 11: Herencias*¹⁸ taldeei erreparatuko zaie. Batik bat, aztergai den EZZL indarrean sartu zenetik, alegia, 2015eko urriaren 3tik egon diren aldaketak aztertuko dira. Datu horien bitartez, herritarrek, ondasunak eskualdatzeko orduan erabili dituzten tresna juridikoak identifikatu (patroiak), eta, horiek zer maiztasunarekin erabili dituzten ezagutuko da. Azterketa horrek, halaber, indarrean dagoen legearen eraginkortasunari buruzko informazioa emango digu.

Era berean, jurisprudentziari tarte egingo zaio, kasu judizialak aztertuko dira, legea epaitegietan nola interpretatu eta aplikatu den aztertzeko. Modu horretan, epaietan eman diren gatazka edo arazoak identifikatu nahi dira, baita erabaki judizialak hartzeko joerak ere. Horri esker ezagutuko da herritarrek zer erraztasun edo zailtasun topatu dituen ondasunak eskualdatzean, bai eta legeak beren beharrak asetu dituen edo ez.

Bestetik, elkarriketei erreparatuz, bi dira egikarituko diren elkarriketa motak. Lehenik, EZZLren idazketan nahiz aplikazioan parte hartu dutenak elkarriketatuko dira, notario, epaile, abokatu eta

¹⁶ <https://www.notariado.org/liferay/web/cien/estadisticas-al-completo> n eskuragarri.

¹⁷ *Grupo 2*: testamento unipersonal abierto, testamento mancomunado o de hermandad abierto, testamento cerrado y protocolización de testamento ológrafo o parroquial, otros tipos de testamentos o actos de última voluntad, otros actos de trascendencia sucesorial, contratos sucesorios sin transmisión de bienes, contratos sucesorios con transmisión de bienes presentes.

¹⁸ *Grupo 11*: aceptación de herencia (sin adjudicación) o de cualidad de heredero, liquidación comunidad conyugal y de cualquier régimen económico matrimonial (en herencias), adjudicación por título sucesorio con o sin liquidación de comunidad conyugal, renuncia pura y simple de herencia o legítima incluida la futura, renuncia traslativa de herencia, extinción de usufructo uso o habitación por fallecimiento, inventario por fiducia sucesoria, aprobación de la partición realizada por el contador partidor, aceptación de herencia a beneficio de inventario.

ikerlariak, besteak beste. Horrela, legea sortzeko prozesuaren nondik norakoei erreparatuko zaie, alegia, hori aurrera eramateko arrazoiak, zailtasunak, espektatibak, bai eta ondoren (beren jardun profesionalari esker) ezagutu duten aplikazio praktikoa eta herritarren harrera. Eta, bigarrenik, euskal gizartearen lagin bat elkarrizketatuko da; oinordetzari begira gizarteak zer behar, desio nahiz espektatiba dituen ezagutzeko. Lagina euskal gizartearen erakusgarri izan dadin EAEko hiru probintzietako herritarrei egingo zaizkie elkarrizketak. Betiere, inguratzen gaituen gizarte aniztasuna eta aniztasun sozioekonomikoa errespetatuz; alegia, hiriburuez gain landa eremuko zein kostaldeko herriei jaramon eginez, bai eta, adin, genero, arraza, klase, gaitasun, etnia, jatorri naiz erlijio desberdinak dituztenak barne bilduz. Belaunaldi desberdinekin egingo da lan, batetik, beren ondasunen xedapena egin edota egiteko ideia dutenekin, eta, bestetik, ondasun horiek jasoko dituztenekin; hain zuzen ere, belaunaldi arteko kontratu inplizituaren ulerkera berria aztertze aldera: zaintzari eta sostengu ekonomikoari dagokionean, batez ere.

5. Ikerketaren ondorioak eta etorkizunerako planteatutako norabidea

Lan honetan aztertutako egoera juridikoa eta soziologikoa kontuan hartuta agerikoa da auzia sakonean ikertzeko beharrazana. Izatez, indarrean dagoen 5/2015 Legeak, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoak hamar urte beteko ditu datorren ekainean, eta honakoa aukera ezin hobea da hura sakonean landu eta euskal gizartearen izan duen harrera aztertze.

Arestian adierazi bezala, Oinordetza Zuzenbidea familia- eta gizarte-errealitate berrira egokitu behar da, familia-konfigurazioen aniztasuna aitortuz eta bere arauak egokituz, gaur egungo gizartearen balioei eta premiei behar bezala erantzuteko. Familia-konfigurazioak dibertsifikatu ahala, eta belaunaldien arteko dinamikak birdefinitu ahala, zuzenbidearen adar honek bilakaera malgua eta progresiboa behar du izan.

Testuinguru horretan, funtsezkoa da oinordetzaren azterketari diziplina arteko ikuspegi batetik heldzea, alderdi juridikoak eta fiskalak ez ezik, etengabe eraldatzen ari den gizartearen balioetan, jarretan eta portaeretan izandako aldaketak ere kontuan hartuko dituen. Waggonerren (1991) hitzak gureru ekarriz, gizarte-errealitate aldakorrek aintzat hartuta, Gizarte-Zientziak dira Oinordetza Zuzenbidea aztertze eta erreforma legegileak proposatzeko ezagutza-iturri egokiak.

Bide horretan, hots, Euskal Zuzenbide Zibila, eta, zehazki, Oinordetza Zuzenbidea gizartearen beharrezanetara egokitzean, proposaturiko metodologia aplikatzean, prozesuan kontuan hartu beharreko beste hainbat ikergai azaleratuko dira; hala nola, ondarearen eskualdaketa genero ikuspuntua txertatzea, edota egungo gizartearen digitalizazio prozesuaren erronka.

6. Erreferentziak

6.1. Bibliografia

- Alvarado, F. (2023). Normalmente demasiada, y a veces muy poca...protección familiar obligatoria a través de la herencia forzosa (legítima). Una apreciación crítica. *Revista Chilena de Derecho*, vol. 50, 3.zk., 127-147. orr.
- Arroyo Amayuelas, E. (2010). La reforma del derecho de sucesiones y de la prescripción en Alemania, InDret: *Revista para el análisis del Derecho*.
- Atxutegi Gutierrez, J. (2022). Apartamiento y desheredación en el Derecho civil vasco, Atelier, Barcelona.
- Bauman, Z. (2003). Modernidad líquida. Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica de Argentina.
- Cobas Cobiella, M.E. eta De Joz Latorre, C. (2017). La modernización del derecho de sucesiones. Algunas propuestas. *Cuestiones de Interés Jurídico*, ISSN 2549-8402, IDIBE.
- Cottier, M. (2014). Adapting Inheritance Law to Changing Social Realities: Questions of Methodology from a Comparative Perspective, *Oñati Socio-legal Series* [online], 4.zk. (2).
- Delgado Echeverría, J. (2006). Notas sobre la eficacia social de distintos tipos de normas civiles. *Cuadernos de Filosofía del Derecho*, ISSN-e 2386-4702, ISSN 0214-8676, 29.zk.
- (2011). El fundamento constitucional de la facultad de disponer para después de la muerte. *Diario La Ley*, Np. 7675, Sección Tribuna, Año XXXII, Editorial La Ley.
- Erzberger, C. eta Kelle, U. (2003). Making inferences in mixed methods: the rules of Integration. In A. Tashakkori & C. Teddie (Eds.), *Handbook of Mixed Methods in Social & Behavioral Research*. Thousand Oaks, CA.: Sage. 457-488.orr.

- Galicia Aizpurua, G. (2024). Naturaleza jurídica de la legítima vasca de descendientes comentario a la RDGSJyFP 20143/2023, de 25 de julio (JUR 2023), 362-562.orr.
- Goldberg, A. E. (2014). Lesbian, gay, and heterosexual adoptive parents' experiences in preschool environments. *Early Childhood Research Quarterly*, 29(4), 669-681.orr.
- González, M.M, Morgado, B., eta Sánchez-Sandoval, Y. (2002). Diversidad familiar y escuela. Primera evaluación del programa Familias Diversas, Familias Felices. *Cultura y Educación*, 14(4), 431-440.orr.
- Luna Serrano, A. (2014). Unas breves reflexiones para una reforma del derecho sucesorio en el contexto de la actual realidad social. In F. L. Yagüe, M. P. F. Vanrell, J. Á. T. Lana, & Ó. M. Balmaseda (Eds.), *El patrimonio sucesorio. Reflexiones para un debate reformista* (1. ed.) Dykinson, S.L. 3-10.orr.
- Magallón Elósegui, N. (2019). La vecindad civil y los conflictos inter temporales en la ley de Derecho civil vasco, *Cuadernos de derecho transnacional*, Vol. 11, 2. zk.
- Mertens, D. (2005). *Research and Evaluation in Education and Psychology: Integrating Diversity with Quantitative, Qualitative, and Mixed Methods*. Thousand Oaks, CA: Sage.
- Onwuegbuzie, A. eta Leech, N. (2005). On becoming a pragmatic researcher: The Importance of combining quantitative and qualitative research methodologies. *International Journal of Social Research Methodology*, 8, 375-387. orr.
- Parra Lucán, M.A. (2009). Legítimas, libertad de testar y transmisión de un patrimonio, *Anuario da Facultade de Dereito da Universida de da Coruña*.
- Pérez Gallardo, L.B. (2019). Las nuevas construcciones familiares en la sucesión ab intestato..., en pos de superar trazos hematólogicos, *Hacia un nuevo Derecho de sucesiones*, Editorial Ibañez, Bogotá, 327-358.orr.
- Rodas Pacheco, F.D. eta Santillán Iñiguez, J.J. (2019). Breves consideraciones sobre la Metodología de la Investigación para investigadores principiantes, *INNOVA Research Journal*.
- Rodríguez Mena, J. A. (2020). What should we celebrate: father's day, mother's day or family day? a case study on school practices and the educational community's perception of the inclusion of family diversity in Spain. *Journal of LGBT Youth*, 17(2), 129-148.orr.
- Torres García, Teodora F., eta García Rubio, M.P. (2014). La libertad de testar: el principio de igualdad, la dignidad de la persona y el libre desarrollo de la personalidad en el Derecho de Sucesiones, *Fundación Coloquio Jurídico Europeo*, Madrid.
- Urrutia Badiola, A. (2024). 'Mens legislatoris' y 'ratio decidendi' en la legítima civil vasca, *Egiunea: revista del Colegio Notarial del País Vasco = Euskal Herriko Notario Elkargoaren aldizkaria*, ISSN-e 2952-2749, 21.zk.
- Vaquer Aloy, A. (2007). Reflexiones sobre una eventual reforma de la legítima. Indret: *Revista para el Análisis del Derecho*, ISSN-e 1698-739X, 3.zk.
- Waggoner, L.W. (1991). The Multiple-Marriage Society and Spousal Rights Under the Revised Uniform Probate Code. *Iowa Law Review*, 76 (2), 223-272. orr.
- Yanguas, J. eta Zalakain, J. (2023). A la búsqueda de una conversación y un debate público sobre el futuro de las relaciones intergeneracionales en Euskadi, *Secretaría General de Transición Social y Agenda 2030*, Eusko Jaurlaritz. Gobierno Vasco. Erronkak bilduma colección.

6.2. Legedia

- 1889ko uztailaren 24ko Errege Dekretua, Kode Zibila argitaratzen duena.
- 1949ko Alemaniako Errepublika Federalaren Oinarritzko Legea.
- 1978ko abenduaren 29ko Espainiako Konstituzioa.
- 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuarena.
- 3/1992 Legea, uztailaren 1ekoa, Euskal Herriko Foru-Zuzenbide Zibilar buruzkoa.
- 2/2006 Legea, ekainaren 14koa, Galiziako zuzenbide zibilar buruzkoa.
- 10/2008 Legea, uztailaren 10ekoa, Kataluniako Kode Zibilarren laugarren liburuarena, oinordetzei buruzkoa.
- 1/2011 Legegintzako Dekretua, martxoaren 22koa, Aragoiko Gobernuarena, Aragoiko lege zibilen testu bategina onartzen duena, Aragoiko Foru Zuzenbidearen Kodea.
- 650/2012 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2012ko uztailaren

4koa, eskumenari, lege aplikagarriari, ebazpenen aintzatespenari eta betearazpenari buruzkoa, mortis causa oinordetzen arloko dokumentu publikoen onarpenari eta betearazpenari buruzkoa eta Europako oinordetza-ziurtagiri bat sortzeari buruzkoa.

- 5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskal Zuzenbide Zibilar buruzkoa.
- 7/2017 Legea, abuztuaren 3koa, Balear Uharteetako Zuzenbide Zibilararen Konpilazioa aldatzen duena.
- 21/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilararen Konpilazioa edo Foru Berria aldatu eta eguneratzekoa.

7. Eskerrak eta oharrak

Lanak egilea aurrera eramaten ari den doktoretza tesiaren zati bat du aztergai; hain zuzen ere, Euskal Herriko Unibertsitateko Enpresa Zuzenbidea eta Zuzenbide Zibilararen sailean kokatua, eta, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Doktoretza Aurreko Programaren barnean egindako doktorego aurreko ikerketa kontratuari esker finantzatua.

Eskerrak Itziar Alkorta Idiakez eta Martin Ramstedt tesi zuzendariei, ikerketa munduan ateak ireki eta babesa emateagatik, bai eta Max Planck for Social Anthropology Institutuko ikerlariei egonaldia etxe sentiarazteagatik.